

XaguArtea

2011ko abenduaren 19a

Xagun aldizkaria

72. alea

Badatoz Eguberri jaiak



Garai honetarako giro ezin aproposagoarekin, gain-gainean ditugu Eguberri jaiak. Aurten ere egun berezia izango dugu Zerainen abenduaren 24a, Gabon eguna: familia, lagunartea, kantua, ospakizunak, Olentzero, etab. Ezer ez da faltako! Goizeko 9etan kultur elkarteak eta parrokiak antolatuta, gaztetxo eta ez hain gaztetxoen taldea Barbari aldetik abiatuko da etxez etxe kantuan eta eskean aritzeko. Goizean urrutien dauden auzoak pasako dituzte, eta arratsaldean herri-kaskoa. Goizeko 9:30etan berriz, herriko eskolako haur, irakasle eta gurasoak irtengo dira herri-inguruan alai kantatzera. Iluntzeko 7ak aldera, Olentzeroren bisita izango dugu eta Uharka abesbatzak eta umeek ongietorria emango diote kantuz. Ea gauean ere ondo-ondo portatzen den mendietako ikazkin zaharra.

XAGUARTEAK sei urte bete ditu



Zeraindarron aldizkaria jaio da



Zeraindarron aldizkaria jaio da. Hona hemen hiru argazkiak: ezkerrean, herriko eliza; erdian, herriko plaza; eta eskuinean, herriko kale bat. Aldizkaria hainbat urte behar izan ditu bere lehen alea argitaratu arte. Hona hemen hiru argazkiak: ezkerrean, herriko eliza; erdian, herriko plaza; eta eskuinean, herriko kale bat.

Duela sei urte, 2005eko abenduaren 19an argitaratu zen XAGUARTEAREN lehen alea. Ordutik hona hilero-hilero eman digu aldizkari xume honek herriko berri. Beste hainbat urtean ere horrela izan dadin desio dugu. Horregatik, hasiera hartan idatzitakoa berriz gogora ekarri nahi dugu: "Etorri gugana beldurrik gabe! Artea xagu guztiona den bezala, XAGUARTEA ere denona baita!"

Hauteskundeetako emaitzak

Joan den azaroaren 20an, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egin ziren. Zerainen 214 herritarrek izan zuten botoa emateko eskubidea. Horien artetik 172k eman zuten botoa. Ez zen baliogabeko botorik eta boto txuririk egon. Eta emaitzak honako hauek izan ziren: AMAIUR 97 boto; EAJ 69 boto; UPyD 2 boto; PP 1 boto; PSOE 1 boto; EQUO 1 boto, PACMA 1 boto.

Egun berean Espainiako Senaturako hauteskundeak ere egin ziren. Oso antzeko emaitzak izan ziren. Amaiurren hautagaiak jaso zuten babes handiena eta bigarren EAJren hautagaiak geratu ziren.

Lapurren bisita herrian

Abenduaren 7tik 8rako gauean, lapurrak sartu ziren Liztormendi soziedadean. Txikizioa eta traste-nahastea eragin bazituzten ere, zorionez ez zuten ezer baliozkorik eraman. Gau berean, aterpetxeko sukaldean ere sartu ziren, baina hemen ere aparteko kalterik eragin gabe.



Udaletxeak 300 urte



Udaletxeak, Udala, Ostatua eta kartzela dituen eraikinak, 300 urte bete ditu aurten. Hori ospatzeko hainbat hitzaldi egin ziren azaroaren 22tik 24ra bitartean. Azaroaren 27an, berriz, oroimen ekitaldia eta festa egin ziren eraikinaren aurreko plazan. Bertsolari, dantzari eta hamaiketakoarekin, herri-giroan ospatu genuen gure udaletxearen 300. urteurrena.

Euskararen eguna ospatu dute eskolan

Zeraingo eskolako haurrek euskararen nazioarteko eguna ospatu zuten joan den abenduaren 2an. Euskararen eguna larunbata zenez, ostiralean egin zuten ospakizuna eliz atarian. Irakasleek lagunduta, eta gurasoen aurrean, euskara gogoan hartu eta ekitaldi polita egin zuten gure herriko umeek.



Aldundiaren aurrekontuak Goierrin aurkeztea

Azaroaren 11n, Foru Aldundiak 2012rako aurrekontu proposamena aurkeztu zuen Beasainen, Martin Garitano diputatu nagusia buru zela. Aurkezpenean parte hartu zuten bi herritarrek ere: Arantxa R. Larrinaga Partaidetzarako Zuzendariak eta Patxi Saez de Egilaz batzarkideak.

Baratza ere ikasteko lekua da

Urteko azken hilabeteak ere bete-beteak izan ditugu. Abenduaren 2an, Tolosako Txotxongiloetan izan ginen, "The Puppet Circus" ikuskizunean.

Abenduaren 9an berriz, eskolaren eta gurasoen artean, herrian sortu berri dugun baratzeko lehen lanak egiten aritu ginen, Antxaputxuko lur sailean, Udalak utzitako lurretan. Baratzean herritar denen laguntza beharko dugu eta laguntzeko prest dagoen edonor jar dadila harremanetan eskolako irakasleekin, gurasoekin edo Haritz Iztuetarekin. Ea nolako baratzkiak sortzen diren!



Bestalde, **abenduaren 26an, goizeko 11.30etan**, Kultur etxean, Zeraingo eskolak eta haurrek, El Salvadorreko San Diegitoako eskolarekin duten loturaren kontakizunak izango dira, herritar ororetzat.

Basarte Guraso Elkarteak

Mendi larreak erabiltzeko izen-ematea

Herriko ganaduzaleek Partzonerian edo herri larretan ganaduak eduki nahi badituzte, udaletxean eman behar dute izena. Datorren urtean, Partzonerian ganadua erabili nahi dutenek abenduaren 30a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Zeraingo herri larretara ganadua bota nahi dutenek, berriz, urtarrilaren 20 arteko epea dute izena emateko.

Izena emateko asmoa dutenek hainbat dokumentu eraman behar dituzte udaletxera. Lehenengo aldia dutenek honakoak aurkeztu behar dituzte: Nekazaritza ustiakuntzako txartelaren kopia, NAN kopia, ganaduen identifikazio agiria, larreetara igoko den ganadu kopurua.

Aurrez ere Partzonerian edo herri-mendietan ganaduak erabiltzen badira: Larreetara igoko den ganadu kopurua eta abereen identifikazio agiria.

Siatsa, eztingea, txakaldu, otxin

Badugu Elenak eta biok, zeraindarraren ondoan, beste zenbait herri-tako irakurle saiaturik. Berri-emailek ere bai. Mutiloan bada, bereziki, galduz doazen hitzen biltze-lanean fin saiatzen den herritarra. Izenik ez dugu emango, bere gogoia errespetatuz. Bai, ordea, bere trebezia aitortuko. Berri-emaile jator hau konturatua dago, Zerainen bezala Mutiloan ere zenbait hitz galtzen ari dela. Galduz doaz, bere ustez, umetan ikasi eta gartzetan barra-barra erabilitako hitz asko. Horrelako zenbait hitzi *Xaguarte* honetan lekutxo bat egitea gustatuko litzaioke, eta ondo iruditu zaigu Mutiloako berriak ere kontuan hartzea. Herri bi izanik ere, elkarren ondoan daude, eta uste izatekoa da bietan antzera dabiltzala hitz-galtze kontuok.

Aurreko batean, mendi-bueltaxka bat egiten ari ginela, horrelako hitz batzuen berri eman zigun Mutiloako gure datu-emaile argiak. Paper-punta batean jarriko al zituen eskatu nion, bestela ahaztu egingo zitzaizkidan beldurrez. Baita jarri ere berak, azkar asko, eta guregana bidali. Honako lau hitzok eskuratu zizkigun mutiloar erneak: *siatsa*, *eztingea*, *txakaldu* eta *otxin*. Lau hitz horiei gain-gaineko begirada eman nahi genieke gaur. Lehenengo biak, forma aldetik, *sirats* eta *istinga* dira euskara batuan. Hitz diferenteak izanik ere, elkarren oso antzekoak ditugu adiera aldetik: sinonimoak dira, hainbatean. Beste biak, aldiz, diferenteak dira zeharo: forma aldetik bezala esanahi aldetik ere oso bestelakoak dira *otxin* eta *txakaldu*. Aparte ikusiko ditugu beraz, aurrera-geago. Gatozen lehenengo bietara.

Siatsa. Batez ere Goierri-alde honetakoa da *siratsa* edo *siatsa*, dokumentazio idatziari dagokionez. Horrela dio, behintzat, OEhk. Egia da beste aipamenik ere egiten duela hiztegi horrek (Erronkarin ere jaso izan omen da hitza), baina Tolosatik Altsasura bitartekoak dira garai bateko aipamen gehienak. Bere definizioa ere argi ematen du hiztegiak: "ciénaga, lugarpantanoso". *Siatsa*, *sieslekuba* "lugarpantanoso" omen zen Altsasun.

Istinga. Hau ere ezaguna da Goierriin. *Siats* hitzak baino hedadura zabalagoa du ordea. Bizkaian, eta dot-euskara egiten den Gipuzkoan, aski zabaldua dago, garai bateko dokumentazioan. Hor bakarrik ez: Azpeitialdean eta Beterrin ezaguna izan da. Beterritik aurrera eginez Lapurdiraino ere iristen zen bere ezarpen-eremua. Formari dagokionez, era askotara entzun izan da han-hemen: *istinga*, *istingia*, *istingi*, *iztinga*, *iztingia*, *estinga* eta *eztinga*. Esangura bat baino gehiago izan du hitzak, bestalde. OEhk bigarren adiera da, nolana ere, guri bereziki interesatzen zaiguna: "pantano, cenagal, charca". Hona hiztegitik jasotako zenbait adibide: "Aurrera biarrian / iztingan listuak". "Istinga edo ur putzu txiki baten eta itsaso zabalaren artean dago". "Eguzkiak zingira, iztinga, iztoki, oxin eta ur geldietatik edoski ta zurrut egiten dauzan kutsu guztiak". "Istingak idortu eta eguzkiak lurra pitzatzen duenean". Mitxelenak idatzia da hurrengo hau: "Istinga iritsi-ezinekora daramaten hutsune maltzurak". Baditu hitz honek bere eratorriak ere. Esate baterako, *istingorra* eta *istingadia*. Hegaztia da *istingorra*: gaztelaniazko "chorlito, becacin, agachadiza". Iparraldetik jaso da, 1925ean, hurrengo esaldi hau: "neguan baizik ez dugu hemen gaindi ikusten ixtingorra". Istingetan bizi den txoria da, nolana ere. Era berean, *istingadi* hitzak adiera argia du: "lugarpantanosos".

Otxina, otxiña. Mutiloako berri-emaileak, *otxin* zer den esateko, honako hau ezarri zigun paperean: zuk janen bat emandakoan eta nahi ez duenean "otxiñek emango di(zki)at" (esaten omen da). Begiratu dugu hiztegian, nola jasorik dagoen. Mutiloako adibide horren adieraren parekorik ez dugu topatu. Diferente samarra dirudi OEhk esplikazioak: Iparraldean, Nafarroako Zaraitzu, Baztan, Bortzirietan eta, Iztueta zaldibiarren garaian, Gipuzkoan "peso, moneda" esateko erabiltzen omen zen *otxin*, batetik, eta "patacón, pataca" esateko bestetik. Hona adibideak: "Irabaziko

lituke irurogeita amarmilletan mill ta geiago otxin ta ezkutu". "Milla otxiñean igarotzen diraden trabesak". "Hunek etzuen pentsatzen / karraka eta otxiñez baizen". "Nola Jesus, bere nausia, hogoia eta hamar otxinetan saldu izan duen". "Erregu ogia otxinetan". "Berrogeira otxin pagatu". "Talotxin, talotxin, gure aurrak bost otxin". Adiera hori ote da mutiloar berri-emaileak jaso duena? Hala bada, bistan da oso aspaldiko diru-mota baten oihartzuna dagoela "otxiñek emango di(zki)at" horretan.

Txakaldu. Hasieran esan dugunez, oso diferentea da hitz hau ere: ez du aurrekoekin zerikusirik. Hemen sartuko dugu, halere, gaurko azalpena lau hitzokiko osatzeko. Mutiloarrak argi definitu du hitza. Pertsona bat motelduta ikusten denean "hori txakalduta zegok" esaten omen da herrian, adin batetik gorakoan artean. Bat dator definizio hori OEh hiztegiak ematen duenarekin: "debilitarse, debilitarse física y mentalmente". Horren aplikazio konkretua da, antza, honako hau: "beroak txakaldu, transirse de calor".

Horra beraz, labur-labur, Mutiloako berri-emaile lagunaren lau hitzak azaldu. Bistan da lehenengo biak zergatik galtzen ari diren: Istingasiratsak galtzen ari dira, kalea ez ezik baserria ere urbanizatzen ari da eta, ustez hobe delakoan, garai bateko urleku gehienak lehertu egin ditugu. Ehiztariak ere ez dute irabazi handirik aterako heze-gune horiek galtzarekin: istingarik gabe ez dago istingorrik. Beste bi hitzetan, berriz, motiboa diferentea da: garai bateko sutondohizkera (aitona-amonetatik ilobetara bere osoan, kasik intaktu) transmititzen zena ziztu bizian galtzen ari da eta galera horrek, geu ohartu gabe, mendeetako hitz-altxorra aurrean darama kontenplazio handirik gabe. Lehen alternantzia argia zuten ia-sinonimoek bakartzera jo dute, etxe-hizkera haren faltan. Pertsonak *ahuldu* egiten direlarik, zertarako *txakaldu* hitza gorde eta aplikatu?

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

AZAROA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		13	0	7	6	70	85
C° altuena		21	21	18	18	13	12
C° baxuena		13	15	16	11	10	9
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	10	0	0	0	0	0	0
C° altuena	14	13	18	20	20	21	18
C° baxuena	12	8	8	13	14	13	14
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	0	5,5	0	0	0	0	0
C° altuena	16	18	17	18	16	16	16
C° baxuena	14	9	10	7	8	12	13
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	3,25	0	0	0	0	0	0
C° altuena	16	13	15	15	13	14	12
C° baxuena	13	8	11	8	4	9	3
	28	29	30				
Euria (l/m)	0	0	0	GUZTIRA : 199,75L			
C° altuena	12	14	12	ALTUENA: 21°			
C° baxuena	3	5	4	BAXUENA: 3°			

Azaroa eguzkitsua

Azaroa, beti hilabete iluna, hotza eta bustia ezagutu dugu, aurten arte. Ikusi besterik ez dago zein temperatura epe-lak egin dituen; izotzik egitera ere ez da iritsi, eta euriaz zer esango dugu! Hiru-lau egunetan hil osokoak bota ditu, ia 200 litro. Negu girorik oraindik ez dugu ikusi, begira bestela Barbari bidean orbelak zein lehorrak dauden.



Badator sagardo deboraldia Zeraina

Neguaren hasiera honetan, udazkeneko fruituen zukurik preziatuena ia prest dugu. Abenduan bi barrikote egin dira soziedadean sagardoa probatu aitzakian. Abenduaren 9an "gazteen" barrikotea egin zen Oiharteko sagardoarekin. Handik zortzi egunera "helduen" barrikotea egin zen Otatzako sagardo berriarekin. Biek ala biek jaso dute herritarren oniritzia eta beraz, Eguberriak pasa ondoren, prest dira denboraldi berrirako atea irekitzeko.

Oiharten urtarrilaren 5ean, Errege bezperan izango da txotxaren irekiera eguna. Dani eta Pello trikitilariak, eta Iker Zubeldia eta Sebastian Lizaso bertsolariak bertan arituko dira giroa alaitzen. **Otatzan**, berriz,



urtarrilaren 13an irekiko dituzte kupelak, trikitilariak eta festa giroak lagunduta. Sagardoa prest da, gure sagardotegiak prest daude, beraz aukera ezingo dugu alperrik galdu. Txooooootx!



Herri-bilera egin zen abenduaren 18an

Udalak bultzatuta herrian sortu diren lan-talde eta komisioren herri-bilera egin zen abenduaren 18an. Talde bakoitzean lan egiteko izena eman duten herritarren zerrendaren errepasoa egin zen bileran. Komisio bakoitza bere kabuz lanean hasiko da orain, eta hurrengo batzar orokorra martxoaren 24an egingo da.

Medikuaren oharra

Osakidetzak jakinarazi duenez, Zeraingo medikuaren kontsultaren ordutegia aldatu egingo da Gabon garaian. Abenduaren 21etik urtarrilaren 5era bitartean, goizeko 8etatik 10etara edukiko dugu medikua herrian. Gogoratu, aurrez txanda hartzea beharrezkoa dela.

Maialen Alustiza saritua

Maialen Alustiza herritarrak Segurako Joxean Ormazabal VIII. ipuin, bertso eta marrazki lehiaketan 5. eta 6. mailakoen saria irabazi du Olentzerori buruz egindako lau bertsoekin. Zorionak!